



ELGETAKO UDALBATZARI

KATALUNIAKO ERREPUBLIKA AITORTZEKO MOZIOA

Elgetako EH Bilduk, ondorengo **MOZIOA** aurkezten du, **OHIKO UDALBATZAN** eztabaidatzeko, **Kataluniako Errepublika independentearen aitortzari buruz.**

ZIOA:

Eusko Legebiltzarrak adierazi du Kataluniak, Euskal Herriak edota hala nahi lukeen ezain herrik, bere etorkizuna libreki, herritarren borondate soilaren arabera, erabakitzeko eskubidea duela. Urriaren 27an, Kataluniako Parlamentuak eskubide hori baliatu eta Kataluniako Errepublika independentea aldarrikatu zuen. Erabakia bertako herritarren borondatean oinarritzen den heinean, zilegitasun demokratiko osoa du, urriaren 1eko erreferendumean Estatu espainolaren bortizkeriari eta errepresioari herritarren botoak gailendu zitzaizkielako.

Elgetako Udal Batzarra osatzen dugun alderdi batzuk ere publikoki aitortu izan dugu errespetatzen ditugula Kataluniako herriak hartzen dituen erabaki demokratikoak eta urriaren 1eko emaitza.

Errepublika independentea aldarrikatuta, Kataluniako Parlamentuak prozesu eratzaille, demokratiko eta parte-hartzailea abiarazi du, eta munduko estatu eta erakundeei dei egin die Errepublika katalana Estatu independente eta burujabe gisa hartzera. Hori



horrela, Elgetako Udalak dei horri erantzun behar dio modu positiboan, eta Kataluniako Errepublika independentea aitortu behar du.

Horregatik guztiarengatik, ondorengo mozio proposamena aurkezten dugu ohiko plenoan eztabaidatzeko:

MOZIOA

1. Elgetako Udalak 2017ko urriaren 1ean Katalunian burututako erreferendumaren ondorioz Kataluniako Parlamentuak aldarrikatu duen Kataluniako Errepublika aitortu eta errespetatzen du, zuzenbide Estatu independente, burujabe, demokratiko eta sozial bezala.
2. Era berean, udal honek Espainiako Konstituzioaren 155. Artikuluaren ezarpena, eta ezarpen horretatik eratorritako ondorio guztiak salatzen ditu.
3. Elgetako Udalak ebazpen hau Kataluniako Generalitateari eta Espainiako Gobernuari jakinaraziko die.

Elgetan, 2017ko azaroaren 28an